

KONTROL MOZIOA

UDAL GOBERNUAK EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO KONPROMISOAREN BETEKIZUNEAN UDALAREN HIZKUNTZA IRIZPIDEEN ERABILERA EKIMEN PRIBATUEKIN BATERA ARITZEN DENEAN

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2017ko otsailaren 13an Pertsonentzako Zerbitzuetako Batzordean aztertutako Udalaren hizkuntza irizpideen erabilera eta ekimen pribatuei buruzko interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2017ko otsailaren 13an Pertsonentzako Zerbitzuetako Batzordean aztertutako interpelazioan azpimarratu genuen goraiatzekoa dela Ekonomia Bultzatzeko, Merkataritzako, Ostalaritzako eta Turismoko Zinegotzigoa delakotik egiten ari den lana Donostiako modaren inguruan, bertako diseinatzaile, denda eta dendariak laguntzeko, eraginkorrakoak izan daitezen, eta urteetan Donostiako marka izan dena gorde dadin. Talde honen ustez, lan hori garrantzitsua da efektu biderkatzailea duen neurrian, merkataritza txikia bultzatzen duelako, eta Donostia benetan lagunkoia gauzatzen laguntzen duelako. Guztiz beharrezkoa sektoreak aurki jasango dituen mehatxuei aurre egiteko bestalde ere.

Testuinguru horretan, euskararen erabilerari emaniko trataeran, aldiz, ezegokitasunak agertu dira. Eremu publiko eta pribatua nahastuta, eta disfuntzioak tarteko, arestian aipaturiko interpelazioa aurkeztu genuen Pertsonentzako Zerbitzuetako Batzordean. Ekonomia Bultzatzeko, Merkataritzako, Ostalaritzako eta Turismoko zinegotzi ordezkariak emaniko azalpenek ez zituzten argitu mahai gaineratu ziren arazoak. Ondoren, gainera, informazio kontraesankorrak jaso ditugu, Udalak dituen arau eta jarraibideak, hala nola, Udalbatzak azkeneko urte eta hilabeteotan hartu dituen konpromisoak betetzeari begira.

Horiek horrela, hauxe da gure **MOZIOA**:

1.- Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari, Euskararen Egunaren bezperetan, zehazkiago azaroko Udalbatzarrean aho batez onartu zituen konpromisoetan, jarraian azalduko direnak, sakondu eta Udalaren irudia tarteko den egoeretan arreta berezia jarriko duela. Honako hauek dira azaroaren 24ko Udalbatzak hertsiki eskatzen ziona Udal Gobernuari:

“1.1.- Donostiako herritarrei euskararen erabilera bermatuko diela, gaztelerazkoa bermatzen dien neurri berean.

1.2.- Arreta berezia jartzeko euskaraz bizitzea posiblea dela erakusten duten ekimenetan, eta horretarako Udal Gobernuak behar diren neurri eta baliabideak jarriko dituela.

1.3.- Euskararen erabilera normalizatzeko bidean aurrera-urratsak emango dituela, indarrean dagoen “Donostiako Udal Administrazioan Euskararen Erabilera Normalizatzeko 5. Plangintzaldiaren (2013-2017)” arau eta jarraibideen norabidea kontuan hartuz.”

2.- Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari, Euskararen erabilera normalizatzeko bidean aurrera-urratsak emateari begira, 2017an prestatu behar den “Donostiako Udal Administrazioan Euskararen Erabilera Normalizatzeko 6. Plangintza-aldia” prestatzerakoan,:

- arreta berezia jarriko duela Udalaren irudiaren erabilera tartekatzen denean eta
- udaleko sozietate eta erakundeetan egun Udalak indarrean dituen arau eta jarraibideak ezarriko dituela.

Donostian, 2017ko otsailaren 17an

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH Bildu udal taldeko zinegotzia